GIZARTE ZERBITZUAK
SEERVICIOS SOCIALES

**1188/18. DEKRETUA**

Diru-laguntzei buruzko araudia aintzat hartuta,

Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra aintzat hartuta,

Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta horri dagokion kreditua egokia eta nahikoa dela aintzat hartuta,

Gizarte Zarbitzuak sailaren proposamena aintzat hartuta, ebazpen honen zio moduan baliatu dena,

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikuluak, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau XEDATZEN DUT:

Lehenik.- **GARAPEN-BIDEAN DAUDEN EDO ZUZENEAN EDO ZEHARKA HONDAMENDIREN BAT IZAN DUTEN HERRIALDEETAKO HAURRAK 2018AN ALDI BATERAKO HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.** lehiaketaren deialdia eta berariazko oinarri arautzaileak onartzea, honako eduki honekin:

Bigarrenik.- Ebazpena argitaratzeko hona bidali: http://leioazabalik.leioa.net/

Alkate andreak, Mª Carmen Urbieta González, horrela agindu eta izenpetu du Leioan, bi mila eta hamazortziko apirilaren hogeitabostean eta horretaz guztiaz, nik, idazkaria, fede ematen dut.

ALKATEA,

Sin.:Mª Carmen Urbieta González.

**DECRETO NUM. 1188/18**

Considerando la normativa en materia de Subvenciones,

Considerando la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa,

Considerando el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa y la existencia de crédito adecuado y suficiente al respecto,

Considerando la propuesta del Área de Servicios Sociales, que sirve de motivación a la presente resolución,

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, DISPONGO:

Primero.- Aprobar la convocatoria y las bases específicas reguladoras para la **ACOGIDA TEMPORAL DURANTE EL 2018 DE NIÑOS Y NIÑAS DE PAÍSES EN VÍAS DE DESARROLLO O QUE DE FORMA DIRECTA O INDIRECTA HAYAN SUFRIDO ALGÚN TIPO DE CATÁSTROFE.**, con el siguiente contenido:

Segundo.- Remitir la resolución para su publicación en http://leioazabalik.leioa.net/

Así lo mandó y firmó la Sra. Alcaldesa, Dña. Mª Carmen Urbieta González, en Leioa, a veinticinco de abril de dos mil dieciocho, de todo lo cual, yo, la Secretaria, doy fé.

IDAZKARIA,

Sin.: Chiara Camarón Pacheco

---

| | |
|---|---|
| **GARAPEN-BIDEAN DAUDEN EDO ZUZENEAN EDO ZEHARKA HONDAMENDIREN BAT IZAN DUTEN HERRIALDEETAKO HAURRAK 2018AN ALDI BATERAKO HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.** | **BASES REGULADORAS DE SUBVENCIÓNES PARA ACOGIDA TEMPORAL DURANTE EL 2018 DE NIÑOS Y NIÑAS DE PAÍSES EN VÍAS DE DESARROLLO O QUE DE FORMA DIRECTA O INDIRECTA HAYAN SUFRIDO ALGÚN TIPO DE CATÁSTROFE.** |

| ZIOEN AZALPENA. | EXPOSICIÓN DE MOTIVOS |
| --- | --- |
| Leioako Udaleko Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenarako Saila jakitun da garapen jasangarriko helburuak ezartzeko erantzukizuna duela, sozietate zibilaren partaidetza sustatzen jarraitzeko, funts erabilgarriak osatzeko eta ahalmen eta esperientzia propioak ekartzeko toki-eremuan, pertsona kalteberen mesedetan. | El Área de Acción Social, Sanidad, Consumo, Igualdad y Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Leioa es consciente de la responsabilidad en la implementación de los ODS, para continuar fomentando la participación de la sociedad civil, complementar los fondos disponibles y aportar capacidades y experiencia propia en el ámbito de lo local en beneficio de las personas más vulnerables. |
| Premisa horietan oinarriturik, Leioako Udalak aukerak eskaintzen dituzten eta gizarte-eraldaketa txikiak baina baliotsuak bultzatzen dituen prozesuak babesten ditu. | Desde estas premisas, el Ayuntamiento de Leioa apoya procesos que ofrezcan oportunidades e impulsen pequeñas pero valiosas transformaciones sociales. |
| Horrela, Leioak, udalerri solidarioa denez, bidezkoagoa den mundu bat eraikitzen lagundu nahi du, giza oparotasuna bultzatzen duena eta gure planeta babesten duena. | Leioa municipio solidario, quiere contribuir de esta manera a construir un mundo más justo que impulse la prosperidad humana y proteja nuestro planeta. |
| Garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko diru-laguntza deialdi hoen bitartez, bi modalitate ezartzen dira: bata, Leioako pertsonei edo familia-unitateei aldi baterako harrerako ekintza solidario eta humanitarioan laguntzeko eta bestea, helburu horrekin programak kudeatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteei laguntzeko. | Mediante la presente convocatoria de subvenciones para acogida temporales de niños y niñas de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirectamente hayan sufrido algún tipo de catástrofe, se acuerdan dos modalidades, una para apoyar a las personas o unidades familiares de Leioa en la acción solidaria y humanitaria de acogida temporal y la segunda modalidad para apoyar a las asociaciones sin ánimo de lucro que gestionen programas con este objetivo. |
| Leioako Udaleko Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenarako Sailak, udal honen diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrean hizpatutakoaren arabera (udalbatzak 2005/12/20an onetsi zuen), diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen araudia onartzen duena, aplikatuz, garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko diru-laguntzen deialdi hau ezartzen du, erabaki honen bitartez: | El Área de Acción Social, Sanidad, Consumo, Igualdad y Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Leioa, de conformidad con lo estipulado en la Ordenanza General de Subvenciones de este Ayuntamiento, aprobada por el Pleno de la Corporación Municipal de 20/12/2005 en aplicación de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley 38/2003, establece la presente convocatoria de subvenciones para el acogida temporal de niños y niñas de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofe, el siguiente acuerdo: |

**1. artikulua. Diru-laguntzaren xedea**

Diru-laguntza honek helburu bikoitza dauka:

1. Leioako pertsonei edo familia-unitateei, garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako 6 urtetik 18 urtera arteko haurrak udako oporraldietan aldi baterako hartzen dituztenei, laguntza ekonomikoak emateko modua arautzea.

2. Haurren eskubideak eta laguntza humanitarioa sustatzeko helburuarekin programak antolatzen dituzten elkarteei laguntza ekonomikoak emateko modua arautzea, garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat gertatu den herrialdeetako (Sahara, Ukraina, Bielorrusia, Errusia…) haurren egoera soziosanitarioa eta bizi-kalitatea hobetu ahal izan ditzaten 2018an Bizkaian dauden bitartean.

**2. artikulua. Onuradunak**

1. Haur horiek aldi baterako hartzen dituzten pertsonek edo familia-unitateek eskuratu ahalko dituzte, betekizun hauek betez gero:

- Leioako udal-erroldan agertzea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- Harrera egiten duten pertsonek edo familia-unitateek egingo dituzte harrerarako izapideak, EAEn behar bezala erregistratuta dauden eta aldi baterako hartzeko mota horretako programak sustatzen dituzten elkarteen bidez; elkarteek gutxienez urtebeteko esperientzia eduki beharko dute.
- Pertsona edo familia-unitate eskatzaileek egunean izan beharko dute zerga betebeharretan.

2. Betekizun hauek betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskuratu ahalko dituzte:

- Deialdi hau argitaratzen den eguna baino urtebete lehenagotik EAEko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein erakunde publikotako erregistroan formalki eratuta edo inskribatuta dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte

**Artículo 1: Objeto de la subvención**

La presente subvención tiene un doble objetivo:

1. la regulación de la concesión de ayudas económicas a personas o unidades familiares de Leioa que durante los periodos vacacionales estivales, acogen temporalmente a niños y niñas de 6 a 18 años de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofe.
2. la regulación de la concesión de ayudas económicas a las asociaciones que organizan programas con el objetivo de promover los Derechos de la Infancia y Ayuda Humanitaria para que puedan recibir y/o mejorar la situación socio sanitaria y de calidad de vida de estos niños y niñas de países en vías de desarrollo o en los que de forma directa o indirecta haya acontecido una catástrofe (Sahara, Ucrania, Bielorrusia, Rusia…) durante su estancia en Bizkaia en 2018.

**Artículo 2: Beneficiarias**

1.- Podrán acceder las personas o unidades familiares que realicen acogida temporal de estos niños y niñas, que cumplan los siguientes requisitos:

- Figurar en el padrón municipal de Leioa con una antigüedad mínima de un año.
- Las personas o unidades familiares que acogen realizara los tramites de acogida a través de asociaciones debidamente registradas en la CAPV y que promuevan este tipo de programas de acogida temporal con experiencia mínima de un año.
- Las personas o unidades familiares solicitantes deberán hallarse al corriente en sus obligaciones tributarias.

2.- Podrán acceder las asociaciones sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos:

- Entidades sin ánimo de lucro, que estén constituidas o inscritas formalmente en el registro que corresponda de la CAPV o de cualquier institución pública del Territorio Histórico de Bizkaia, con un año de antelación a la fecha de publicación de esta convocatoria.
- Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- Tener capacidad jurídica y no encontrarse en

| | |
|---|---|
| Segurantzarekikoak egunean izatea.<br>• Gaitasun juridikoa izatea eta ez egotea azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 13. artikuluan aipatzen dituen diru-laguntzak eskuratzetik baztertzeko ezein kasutan.<br>• Egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Ondorio horietarako, ordezkaritza iraunkortzat joko da erakundeak Bizkaian egitura esanguratsuak izatea eta agiri bidez egiaztatuta egotea. Kasu horretan, ordezkaritza iraunkorrak zuzeneko erantzukizuna hartuko du, eskaera aurkeztuko du eta proiektuaren dokumentazioa mantentzeko, kontabilitatea egiteko eta Bizkaiko bulegoan batera kudeatzeko konpromisoa hartuko du.<br>• Leioako Udalak lehenago emandako diru-laguntzak administrazioan epean justifikatuta eta itxita edukitzea.<br>• Elkarteak gutxienez urtebeteko esperientzia eduki beharko du garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako adingabeak aldi baterako hartzeko programak kudeatzen. Gainera, programa honetan gutxienez adingabe batek hartu behar du parte aldi baterako harreran Leioako pertsona edo familia-unitate bakoitzeko.<br><br>**3. artikulua. Diruz lagundutako ekintzak**<br>Garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako adingabeak aldi baterako hartzeko programen esparruan 2018an Bizkaian egiten diren jarduerek heldu ahalko diote deialdi honi.<br><br>1. Adingabea hartzeko gastuak laguntzen dira diruz Leioako pertsona edo familia-unitateentzat, hau da, haurrak beren sorterritik aldi baterako lekualdatzeko, hemen egoteko eta hara itzultzeko gastuak. Barne hartzen dira lekualdaketarako ezinbestekoak diren izapideek eskatzen dituzten gastuak, adingabeen egonaldia, gizarte-erantzukizuneko aseguruak, haien etorki-herrialdeetan izapideak egiteko kostuak, | ninguno de los supuestos de exclusión para la obtención de ayudas públicas a que se refiere el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.<br>• Disponer de sede central o delegación permanente en el Territorio Histórico de Bizkaia. A estos efectos, se entenderá por delegación permanente, la existencia acreditada documentalmente, de estructuras significativas de la entidad en Bizkaia. En este caso, la delegación permanente asume la responsabilidad directa, la presentación de la solicitud y se compromete al mantenimiento de la documentación, contabilidad y cogestión del proyecto en su oficina de Bizkaia.<br>• Tener justificadas y cerradas administrativamente en plazo las subvenciones otorgadas con anterioridad por el Ayuntamiento de Leioa.<br>• La asociación deberá tener experiencia mínima de un año en gestión de los programas de acogida temporal de menores de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofe y que en este programa participen al menos un o una menor en acogida temporal por personas o unidades familiares de Leioa.<br><br>**Artículo 3: Acciones subvencionadas:**<br>Podrán acogerse a esta convocatoria las actividades que se realicen durante el 2018 en Bizkaia en el marco de los programas de acogida temporal de menores de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofe.<br><br>1.- Se subvenciona a las personas o unidades familiares de Leioa, los gastos de acogida del menor, es decir, el traslado, la estancia y regreso de las niñas y los niños acogidos temporalmente desde su ciudad de origen. Quedan incluidos aquellos gastos que vengan exigidos por los trámites imprescindibles para llevar a cabo el desplazamiento, estancia de los y las menores, seguros de responsabilidad civil, costes de tramitaciones en sus países de origen, gastos sanitarios, vestido y de material que sea necesario para su estancia en Bizkaia. No serán admitidos gastos de alimentación. |

osasun-gastuak, arropa-gastuak eta Bizkaian egoteko behar den materialaren gastuak. Ez da elikadura-gasturik onartuko.

2. Oinarri hauetako betekizunak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteei diru-laguntza emango zaie garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko 2018an garatutako programaren esparruan xedatzen diren kudeaketa- eta administrazio-jardueren kostuetarako.

Araudi honen bidez onartutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publikoek edo pribatuek xede bererako ematen duten beste edozein diru-laguntzarekin. Hala ere, ezin izango da inoiz gehiegizko finantzaketarik egon, hau da, diruz lagundutako zenbateko osoak (beste erakunde batzuek emandakoa aintzat hartuta) ezingo du inoiz jardueraren kostu osoa gainditu.

**4. artikulua. Eskaeren aurkezpena**

Gizarte-larrialdietarako udal-laguntzen eskaerak Leioako Udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eta udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuetan (udaletxeko eta Gaztelubideko HAZ) aurkeztuko dira, baita urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, horretarako gaitutako erregistroetan ere.

Eskaerak aurkezten badira, deialdi honetan azaldutako baldintza guztiak erabat eta berariaz onartzen direla ondorioztatuko da.

Dagokion diru-laguntza lortzeko, hemen zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Pertsonak edo familia-unitateak eskatzen badu:
   1. Diru-laguntzaren eskaera normalizatua (I. eranskina) eta NANaren fotokopia
   2. Aldi baterako harrera-programa egiten duen elkarteak emandako ziurtagiria; horren bidez, adingabearen nortasuna eta aldi baterako harrera egiten duen pertsonaren edo familia-unitatearen nortasuna egiaztatu behar da.
   3. Aldi baterako harrera-programa egiten duen elkarteak emandako ziurtagiria; horren bidez,

2.-Se subvencionara a las asociaciones sin ánimo de lucro, que cumplan los requisitos de estas Bases, en cuanto a los costes de actividades de gestión y administración que se contemplen en el marco del programa desarrollado en el 2018 de acogida temporal de niños y niñas de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofe.

Las subvenciones reconocidas por la presente normativa serán compatibles con cualesquiera otras concedidas por otras instituciones, públicas o privadas, para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, es decir, sin que el importe total subvencionado en concurrencia con otras entidades pueda superar el coste total de la actividad.

**Artículo 4.- Presentación de Solicitudes**

Las solicitudes de Ayudas Municipales de Urgencia Social se presentarán en los Servicios Sociales de Base del Ayuntamiento de Leioa, en los Servicios de Atención Ciudadana municipales (SAC Ayuntamiento y Gaztelubide), así como en los registros habilitados a tal efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones

La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra y expresa de todas las condiciones planteadas en la presente convocatoria.

Para obtener la correspondiente subvención, será necesario presentar la documentación que a continuación, se relaciona:

a) En el caso de solicitud por la persona o unidad familiar:
   1. Solicitud de la subvención normalizada (Anexo I) y fotocopia del DNI
   2. Certificado emitido por la asociación que realice el programa de acogida temporal que confirme la identidad del o de la menor y la identidad de la persona o unidad familiar que realiza la acogida temporal.
   3. Certificado emitido por la asociación que realice el programa de acogida temporal que mencione que la persona o unidad familiar que acoge temporalmente al o a la menor, tiene la idoneidad para ello y participa en el programa.

| | |
|---|---|
| aipatu behar da adingabea aldi baterako hartzen duen pertsona edo familia-unitatea horretarako egokia dela eta programan parte hartzen duela.<br>4. Aldi baterako harrera-programa egiten duen elkarteak emandako ziurtagiria; bertan, jaso behar da elkarteak gutxienez urtebeteko esperientzia duela garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendi bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko programak kudeatzen.<br>b) Hirugarrenen fitxa (II. eranskina)<br>c) Irabazi-asmorik gabeko elkarte batek eskatzen badu:<br>1. Diru-laguntzaren eskaera normalizatua (I. eranskina).<br>2. Hirugarrenen fitxa (II. eranskina)<br>3. Eskatzailearen NANaren fotokopia.<br>4. Erakundearen administrazio-dokumentazioa: erakundearen administrazio-dokumentazioa Leioako Udalak badauka, ez da berriro aurkeztu behar izango, baldin eta eman ziren data eta bulegoa adierazten badira eta dagokion prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.<br>4.1. Erakunde eskatzailearen estatutuen kopia.<br>4.2. Erakunde eskatzailea deialdi hau argitaratzen den eguna baino urtebete lehenagotik EAEko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein erakunde publikotako erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.<br>4.3. Erakundearen IFKren fotokopia.<br>4.4. Estatutuetan azaldutakoari jarraituz, erakundeko arduradunaren NANaren fotokopia.<br>5. 2018an egin behar den eta diru-laguntza eskatzen den programaren proiektu zehatza. Honako hauek barne hartu behar ditu gutxienez: proiektuaren deskribapena, jarduerak xede dituen biztanleak, lortu nahi diren helburuen deskribapena, egingo den lekuak eta datak, metodologia, etab.<br>6. Diru-laguntza eskatzen den jarduera edo proiektuarekin zerikusia duten jardueren memoria, udalak dagoeneko ez badauka; agiri horretan, eskatzaileak eskaera egin aurreko | 4. Certificado emitido por la asociación que realice el programa de acogida temporal en el que conste que dicha asociación tiene experiencia de al menos un año en la gestión de programas de acogida temporal a niños y niñas de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido una catástrofe.<br>b) Ficha de Terceros (Anexo ll)<br>c) En el caso de ser una asociación sin ánimo de lucro quien lo solicita:<br>1. Solicitud de subvención normalizada (Anexo I).<br>2. Ficha de Terceros (Anexo ll)<br>3. Fotocopia del D.N.I. del solicitante.<br>4. Documentación administrativa de la entidad: Cuando la documentación administrativa de la entidad estuvieran en poder del Ayuntamiento de Leioa, no será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados, y que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.<br>4.1 Copia de los Estatutos de la Entidad solicitante.<br>4.2 Cerficado que acredite la inscripción de la entidad solicitante en el Registro correspondiente de la CAPV o de cualquier institución pública del Territorio Histórico de Bizkaia, con un año de antelación a la fecha de publicación de esta convocatoria.<br>4.3 Fotocopia del C.I.F. de la entidad.<br>4.4 Fotocopia del D.N.I. del Responsable de la Entidad, según los Estatutos correspondientes.<br>5. Proyecto detallado del programa a realizar durante el 2018, para el que se solicita la subvención, incluyendo, al menos, descripción del proyecto, población a la que se dirige la actividad, descripción de los objetivos que se persiguen, lugares y fechas de celebración, metodología, etc.…<br>6. Memoria de las actividades, relacionadas con la actividad o proyecto para el que se solicita la subvención, realizadas por el solicitante durante el año o años anteriores a la solicitud, para el caso de |

urtean edo urteetan egindakoak zehaztuko dira.

7. Eskaera aurkeztu aurreko urteko sarreren eta gastuen balantzea (udalak dagoeneko ez badauka) eta eskaera egiten den urteko aurrekontua, diru-laguntza eskatzen den jarduera edo proiektuari dagozkionak.
8. Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiria, dagokion ogasunak egindakoa.
9. Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, harekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Aldi berean beste erakunde publikoren edo pribaturen batean jarduera berbererako diru-laguntza eskaerarik aurkeztu bada, Leioako Udalean aurkezten den eskaeran hori berariaz adieraziko da eta, gainera, aditzera emango da finantzaketa-eskaera beste zein erakundetan aurkeztu den, baita eskatutako edo, hala badagokio, jasotako munta ere.
Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuz, eskatzaileari beste edozein dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio, aurkeztutako proiektu osoa ebaluatzeko egokitzat jotzen badu.

- **Eskaeren bazterketa:**

Ez dira aintzat hartuko lehenago ere eta jarduera bererako Leioako Udalak emandako diru-laguntzen azalpen-memoria edo agiri bidezko justifikazioa aurkezteke duten pertsonek, familia-unitateek edo erakundeek egindako eskaerak.

- **Eskaera osagabeak edo akastunak:**

Aurkezturiko eskaera edo erantsitako dokumentazioa osatu gabe egonez gero edo zuzentzeko moduko bestelako akatsik edukiz gero, hori gehienez 10 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; halaber, esango zaio zuzendu ezean eskaeran atzera egin duela ondorioztatuko dela.
Gizarte Ekintzako, Osasuneko, Kontsumoko, Berdintasuneko eta Garapenerako Lankidetzako

que no obre ya en poder del Ayuntamiento.

7. Balance de ingresos y gastos del año anterior a aquél en que se presenta la solicitud (para el caso de que no obre ya en poder del Ayuntamiento), así como presupuesto del año en que se cursa la misma, relativos a la actividad o proyecto para el que se solicita la subvención.
8. Certificado de la Hacienda correspondiente, acreditativo de que la entidad solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones fiscales.
9. Certificado de la Seguridad Social que acredite estar al corriente de sus obligaciones para con la misma.

En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Leioa deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de la institución o instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación, así como con expresión de la cuantía solicitada o, en su caso, recibida.
El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

- **Exclusión de solicitudes:**

No se tendrán en cuenta aquéllas solicitudes formuladas por persona, unidad familiar o entidad que tenga pendiente la presentación de memoria explicativa y/o justificación documental de subvenciones recibidas del Ayuntamiento de Leioa en ocasiones anteriores y para la misma actividad.

- **Solicitudes incompletas o defectuosas:**

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sean incompletas o adolezcan de algún otro defecto subsanable, se requerirá al solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.
La persona que ostente la presidencia de la Comisión de Acción Social, Sanidad, Consumo, Igualdad y Cooperación al Desarrollo podrá requerir a las

Batzordeko burua denak beste edozein dokumentazio eta informazio osagarri eskatu ahalko die erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskaera egokiro ebaluatzeko eta ebazteko beharrezkotzat jotzen badu.

- **Epea:**

Eskaerak hamabost egun naturaleko epean aurkeztuko dira, deialdi hau udalaren ediktu-taulan eta udalaren webgunean(www.leioazabalik.leioa.net) argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Eskaerak aipatutako epeetatik kanpo aurkeztuz gero, ezetsi egingo dira eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko dira.

**5. artikulua. Aurrekontu-egozpena**

2018ko ekitaldirako diru-laguntzaren zuzkidura, pertsona, familia-unitate edo erakunde eskatzaileen artean banatu beharrekoa, 12.000 € dira eta Osasuneko, Kontsumoko, Berdintasuneko, Garapenerako Lankidetzako eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko 00600/23107/4900700 aurrekontu-partidan gordeta daude.

Partida horren guztizko kopurua bi azpipartidatan banatzen da. Horietako bat 1. modalitatekorako da, hau da, pertsona edo familia-unitateen eskaera guztietarako, eta 9.000,00 euro ditu. 2. modalitaterako, hots, irabazi-asmorik gabeko elkarteen eskaera guztietarako, 3.000,00 euro xedatuko dira guztira.
Modalitate batean azpipartidan xedatutako kopurua agortzen ez bada, soberakin hori beste modalitatera pasatuko da, ahalik eta eskaera gehien estali ahal izateko eta deialdi honetarako partida guztiaren aurrekontu-zuzkidura agortzeko helburuarekin.

Pertsonek edo familia-unitateek aurkeztutako eskaeretan, gehienez 750 euro eskatu ahalko dira 2018. urtean aldi baterako hartutako adingabe bakoitzeko, eta hartutako adingabe bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu ahalko da.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako eskaeretan, gehienez 500 euro eskatu ahalko dira garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka

entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

- **Plazo:**

La presentación de solicitudes se efectuará en el plazo de quince días naturales a contar desde la publicación de la presente convocatoria en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento y en la página web del mismo (www.leioazabalik.leioa.net).
La presentación de las solicitudes fuera de los plazos mencionados dará lugar a la desestimación de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

**Artículo 5.-Imputación presupuestaria**

La dotación de la subvención para el ejercicio 2018 a distribuir entre las personas, unidades familiares o entidades solicitantes asciende a 12.000€, reservado en la partida presupuestaria del Área de Sanidad, Consumo, Igualdad, Cooperación al Desarrollo y Servicios Sociales, número 00600/23107/4900700

La cantidad total de esta partida, se divide en dos subpartidas, una destinada para la modalidad 1, es decir para todas las solicitudes de personas o unidades familiares, con la cantidad de 9.000,00euros. Para la modalidad 2, es decir para todas las solicitudes de asociaciones sin ánimo de lucro, se destinara una cantidad total de 3.000,00euros.
Si en una modalidad no se agota la cantidad destinada en la subpartida, ese excedente pasara a la otra modalidad, con el objetivo de poder cubrir la mayor cantidad de solicitudes y agotar la dotación presupuestaria del total de la partida para esta convocatoria.

En las solicitudes presentadas por las personas o unidades familiares, se podrá solicitar como cantidad máxima 750 euros por menor acogido temporalmente en el año 2018, pudiéndose presentar una solicitud por cada menor acogido.

En las solicitudes presentadas por las entidades sin ánimo de lucro, se podrá solicitar como cantidad máxima 500 euros por el programa desarrollado en el 2018 cuyo objeto sea la acogida temporal de los y las menores de países en vías de desarrollo o que de

hondamendiren bat izan duten herrialdeetako adingabeak aldi baterako hartzea xede duen eta 2018an garatuko den programarako. Erakunde bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahalko du, 2018an garatutako programen kopurua edozein dela ere.

Diru-laguntzaren emakida norgehiagoka-araubidean egingo da, eta balioespen onena lortzen duten eskaerei emango zaie diru-laguntza, araudi honetan ezartzen diren irizpideen arabera eta dagokion aurrekontu-partidan esleitutako zenbatekoa muga izanik.

Araudi honen esparruan emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako diru-laguntzaren % 100 izango da. Kasu berezietan, Leioako Udalak eskatutakoa baino zenbateko txikiagoa eman ahalko du, proposaturiko gastuak aztertu ostean eta zio arrazoituengatik, baldin hori dela-eta diruz lagundutako ekintza arriskuan jartzen ez bada. Eskaera gehiegi jasotzeagatik aurrekontu-kreditua % 100 hori betetzeko nahikoa ez bada, kreditua banatu egingo da pertsona, familia-unitate edo erakunde onuradun bakoitzak eskatutako gastuaren ehuneko berbera jaso dezan.

**6. artikulua. Hautaketa- eta balioespen-irizpideak**

III. eranskinean aipatutakoak izango dira.

**7. artikulua. Emakida-araubidea: norgehiagoka**

Diru-laguntza araudi honetan ezarritako baldintzen arabera emango da, norgehiagoka-araubideari jarraituz.

Norgehiagoka-araubideko diru-laguntzetan, eskaera ugari aurreikusten dira eta, emakidari buruzko ebazpena emateko, prozedura bakarrean eskaera horiek elkarrekin alderatu behar dira. Hortaz, diru-laguntzaren emakida lehiaketa-araubidean egingo da, eta balioespen onena lortzen duten eskaerei emango zaie diru-laguntza, araudi honetan ezartzen diren irizpideen arabera eta dagokion aurrekontu-partidan

forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofes. Solo se podrá presentar una solicitud por entidad, independientemente del número de programas desarrollados en el 2018.

La concesión de la subvención se realizará en régimen de concurrencia competitiva, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en la presente normativa, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

Las subvenciones concedidas en el marco de esta normativa serán, con carácter general, de un importe del 100% de la subvención solicitada. En casos especiales, el Ayuntamiento de Leioa podrá conceder una cantidad inferior al importe solicitado tras el análisis de los gastos propuestos y por motivos justificados, siempre que por esta causa no se ponga en peligro la acción subvencionadas. En caso de que por exceso de solicitudes el crédito presupuestario no fuera suficiente para cubrir ese 100% se distribuirá ese crédito de forma que cada una de las personas, unidades familiares o entidades beneficiarias reciba un mismo porcentaje del gasto solicitado.

**Artículo 6.-Criterios de selección y valoración**

Serán los que se refieren en el Anexo III.

**Artículo 7.-Régimen de concesión: Concurrencia competitiva**

La concesión de la subvención se realizará de acuerdo a las condiciones establecidas en la presente normativa y siguiendo el régimen de concurrencia competitiva.

Se entiende por subvención en régimen de concurrencia competitiva, la que prevé una eventual pluralidad de solicitudes requiriendo para la resolución sobre la concesión, la comparación, en un único procedimiento, de dichas solicitudes entre sí. Por tanto, la concesión de la subvención se realizará en régimen de concurso otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en la

| | |
|---|---|
| esleitutako zenbatekoa muga izanik. | presente normativa, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria. |
| Batzorde teknikoa izango da antolamendu eta biderapenerako kide anitzeko organoa eta emakida-proposamenak egiteaz arduratuko dena. Deialdi honetarako batzorde teknikoa kide hauek osatuko dute:<br>-Gizarte Ekintzako, Osasuneko, Kontsumoko, Berdintasuneko eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeko burua.<br>-Adinekoen saileko arduradun den teknikaria.<br>-Emakumearen Saileko arduradun den teknikaria.<br>-Lankidetza Saileko arduradun den teknikaria.<br>Idazkaritza Gizarte Ekintzako, Osasuneko, Kontsumoko, Berdintasuneko eta Garapenerako Lankidetzako Saileko arduradun den teknikariari edo hark eskuordetzen dion pertsonari egokituko zaio; pertsona horrek hitza edukiko du, baina botorik ez.<br>Batzorde teknikoak gaia dela-eta bidezkoak jotzen dituen aholkulariak eduki ahalko ditu. | La Comisión Técnica será el órgano colegiado de ordenación e instrucción, encargado de elaborar las propuestas de concesión. La Comisión Técnica para esta convocatoria, está compuesta por los siguientes miembros:<br>-El Presidente de la Comisión de Acción Social, Sanidad, Consumo, Igualdad y Cooperación al Desarrollo.<br>- La Técnica responsable del Área de Personas Mayores.<br>-La Técnica responsable del Área de la Mujer.<br>-La Técnica responsable del Área de Cooperación.<br>Desempeñará la Secretaría, con voz pero sin voto, la Técnica responsable del Área de Acción Social, Sanidad, Consumo, Igualdad y Cooperación al Desarrollo, o persona en quien delegue.<br>Esta comisión Técnica podrá contar con los/as asesores/as que por razón de la materia estime pertinentes. |
| Eskaerak alkatetza-dekretu baten bidez ebatziko dira, Lankidetzako arduradun teknikoak proposatuta, eta Gizarte Ekintzako, Osasuneko, Kontsumoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako Informazio Batzordeari dekretuaren berri emango zaio, gehienez hiru hilabeteko epean deialdi hau argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. | Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía a propuesta de la Responsable Técnica de Cooperación y se dará cuenta del Decreto a la Comisión Informativa de Acción Social, Sanidad, Consumo, Igualdad y Cooperación, en el plazo máximo de tres meses a contar desde la publicación de la presente convocatoria. |
| 10 egun balioduneko epea egongo da interesdunei jakinarazteko, ebazpena ematen denetik aurrera zenbatzen hasita. Jakinarazpena posta elektronikoz egingo da. Eskatutako zenbatekoa murrizten bada, erakundeari eskaera onartzeko eskatuko zaio, eta onarpena eman dela ondorioztatuko da jakinarazpenetik 15 egun balioduneko epean kontrakoa adierazten ez bada. | El plazo de notificación a los interesados será de 10 días hábiles a partir de la resolución. La notificación se realizará por correo ordinario. En caso de reducción del importe solicitado, se solicitará una aceptación de la solicitud por parte de la entidad, dicha aceptación se entenderá otorgada si no se manifiesta oposición en el plazo de 15 días hábiles desde la notificación. |
| Epe hori igaro eta eskaerari buruzko berariazko ebazpenik azaldu ez bada, ukatu egin dela ondorioztatuko da. Hala ere, baliteke ondoren berariaz ebaztea. | En el caso de que transcurrido dicho plazo no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa |
| **8. ARTIKULUA. Pertsona edo erakunde** | **ARTÍCULO 8.- Obligaciones de las personas o** |

| onuradunen betebeharrak | entidades beneficiarias |
| --- | --- |
| Deialdi honen xede diren diru-laguntzen onuradunak diren pertsonek, familia-unitateek edo erakundeek honako betebehar hauek izango dituzte:<br>a) Garapenerako lankidetzaren eremuan diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Diru-laguntzen mandatari orokorrean ezarritako arauak behar bezala betetzea, bai eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezar daitezkeen baldintza bereziak ere.<br>b) Emandako diru-laguntza onartzea. Zazpi eguneko epean, emakida jakinarazten denetik zenbatzen hasita, onuradun diren pertsonek edo erakundeek diru-laguntza berariaz eta idatziz ukatzen ez badute, onartu egin dutela ondorioztatuko da.<br>c) Eskatzeko azaldu zen helburu zehatzerako erabiltzea emandako diru-laguntza.<br>d) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimen guztiak lortzea.<br>e) Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzea (Eusko Legebiltzarraren abenduaren 23ko 10/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, geroko araudiak eta halako ikuskizunak arautzen dituen udal-ordenantza) eta kasuan kasuko jarduketa-eremuari dagokionez aplikagarriak diren estatuko nahiz erkidegoko arauak ere betetzea.<br>f) Diruz lagundutako jarduera dela-eta egiten diren sustapen-elementuetan eta karteletan, testuetan edo agirietan Leioako Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren babesa aipatzea. Horiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, kartelak jartzeari buruzko udal-araudia oso-osorik bete beharko da.<br>g) Helburu berbererako lortu diren gainerako diru-laguntza guztien berri ematea, horien jatorria publikoa zein pribatua izan, eta jasotako munta berariaz adieraztea.<br>h) Azterlan, inkesta edo estatistikarik egin behar izanez gero, Leioako Udalarekin elkarlanean aritzea, eskatzen bazaio, eta lantaldeetan parte hartzea.<br>i) Udalak egiten dituen egiaztapen-jarduketa guztiak onartzea.<br>j) Emandako kopuruari eman zaion erabilera | Las personas, unidades familiares o entidades beneficiarias de las subvenciones objeto de la presente convocatoria deberán cumplir con las siguientes obligaciones:<br>a) Cumplir debidamente con las normas establecidas en la Ordenanza General de Subvenciones, así como las condiciones particulares que pudieran establecerse en las presentes bases.<br>b) Aceptar la subvención concedida. Si en el plazo de siete días, a contar desde la fecha de notificación de la concesión, las personas o entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ha sido aceptada.<br>c) Dar a la subvención concedida el concreto destino para el que fue solicitada.<br>d) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada.<br>e) Cumplir con la normativa vigente en lo referente a la organización de actividades y espectáculos públicos (Ley del Parlamento Vasco 10/2015 de 23 de Diciembre de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, Reglamentos Posteriores y Ordenanza Municipal que eventualmente regule de tales eventos), así como con el resto de la normativa, estatal o autonómica, que sea aplicable al ámbito de actuación de que se trate.<br>f) Incorporar en los elementos de promoción y en los carteles, textos o documentos que se elaboren con ocasión de la actividad subvencionada, los cuales deberán editarse en las dos lenguas oficiales de la CAPV., la mención del patrocinio del Área de Acción Social del Ayuntamiento de Leioa, cumpliendo en todo caso con la normativa municipal respecto a la colocación de carteles.<br>g) Comunicar la obtención de cualquier otra ayuda económica para el mismo fin, sea su procedencia bien pública o bien privada con indicación expresa en todo caso de la cuantía recibida.<br>h) Colaborar con el Ayuntamiento de Leioa, en caso de ser requerida, para la eventual elaboración de estudios, encuestas, o estadísticas, así como la participación en grupos de trabajo.<br>i) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúe el Ayuntamiento.<br>j) Proceder a la justificación posterior del empleo |

justifikatzea, garapenerako lankidetzaren eremuan diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal-ordenantzaren 17. artikuluan eta deialdi honen 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

k) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiri guztiak gordetzea, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egin daitezkeelako horien gainean.

l) Kontabilitate-liburuak, erregistroak, eginbideak eta behar bezalako auditoretza egin zaien gainerako agiriak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplika dakiokeen merkataritza- eta sektore-legeriaren arabera, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileetan eskatzen diren berariazko erregistroak eta kontabilitateko egoera-orriak ere, egiaztapena eta kontrola egiteko ahalmenak egoki betetzen direla bermatzeko.

m) Jasotako funtsak itzultzea (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan ezarritakoarekin eta Leioako Udaleko diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrak, 2012ko abenduaren 17ko osoko bilkuran onetsitakoak eta 29. BAOn, 2013ko otsailaren 11koan, argitaratutakoak, hamazazpigarren eta hemeretzigarren oinarrietan xedatutakoarekin bat etorriz itzultzeko arrazoiren bat badago).

**9. artikulua. Diru-laguntzaren justifikazioa**

Diru-laguntza justifikatzeko, onuradunak egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztuko du, hori eman zen jarduera bukatutakoan. Diru-laguntzaren justifikazio osoa 2018ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

1. Aldi baterako harrera egiteko pertsonei edo familia-unitateei emandako diru-laguntza ondo justifikatzeko, agiri hauek behar dira:

a) Haurrak bere etorki-herrialdetik egin duen bidaiaren gastuaren jatorrizko fakturak; ildo horretan, bai adingabearen bidaiaren fakturak bai elkarte bitartekariak emandako ziurtagiri bat, bidaiaren kostua edo eskatzaileak

dado a la cantidad otorgada, en los términos del artículo 17 de la Ordenanza Municipal Reguladora de concesión de Subvenciones en el ámbito de la Cooperación al Desarrollo y en los términos del artículo 9 de esta convocatoria.

k) Conservar todos los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, en tanto que puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control.

l) Disponer de los libros contables, registros, diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

m) Proceder al reintegro de los fondos percibidos (en caso de incurrir en alguna de las causas de reintegro contempladas en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y a las bases decimoséptima y decimonovena de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa, aprobada en sesión plenaria el 17 de diciembre de 2012 y publicada en el BOB nº 29 de 11 de febrero de 2013.

**Artículo 9.- Justificación de la subvención.**

La justificación de la subvención por parte del beneficiario se realizará mediante la aportación de la cuenta justificativa del gasto realizado, una vez finalizada la actividad para cuya realización se concedió la subvención. Se deberá de aportar la justificación total de la subvención antes del 31 de Diciembre de 2018.

1.- Para una correcta justificación de la subvención concedida a las personas o unidades familiares de acogida temporal se requiere la siguiente documentación:

a) Facturas originales del gasto del viaje del niño o la niña desde su país de origen, en este sentido se admitirán tanto las facturas del viaje de la o el menor como un certificado expedido por la Asociación intermediara acreditativo del coste del viaje y/o de la cantidad desembolsada por la persona

| | |
|---|---|
| ordaindutako kopurua egiaztatzen dituena, eta ordainagiria onartuko dira.<br>b) Harrera egiteko ezinbestekoak diren gastuen, adingabeen egonaldiaren, gizarte-erantzukizuneko aseguruen, haien etorki-herrialdeetan izapideak egiteko kostuen, osasun-gastuen, arropa-gastuen eta Bizkaian egoteko behar den materialaren gastuen jatorrizko fakturak.<br><br>2018ko ekitaldian benetan gauzatu diren gastuak joko dira egindako gastutzat. Udalak pertsona eskatzaileen adierazpenak egiaztatzeko eskubidea gordetzen du eta beharrezkoak iruditzen zaizkion datu eta txosten guztiak eskatu ahalko dizkie beste erakunde publiko edo pribatu batzuei.<br><br>2. Irabazi-asmorik gabeko elkarteei emandako laguntza ondo justifikatzeko, agiri hauek behar dira:<br><br>a) Garatutako jardueraren memoria zehaztua.<br>b) Jarduerak eragindako diru-sarreren eta gastuen balantzea; diruz lagundutako jarduerarako beste edozein laguntza edo diru-laguntza publiko edo pribatu jaso bada, hemen azaldu beharko da.<br>c) Jardueraren ondorioz sorturiko gastuen jatorrizko egiaztagiriak, emandako muntaren kopuru osoraino. Egiaztagiriak fakturak edo trafiko juridikoan frogatzeko balio bera duten bestelako dokumentuak izango dira.<br>d) Ez da egiaztagiri gisa onartuko erakunde onuradunarentzat egindako faktura ez den tiket edo frogagiririk. Era berean, ez dira onartuko administrazioko barne-kostuak, erakundearen antolaketa, senidetasun-bazkarien edo antzekoen kostuak eta garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko programa garatzeari zorrozki lotuta ez dauden kostuak.<br><br>e) Diruz lagundutako jarduera dela-eta editaturiko edo argitaraturiko liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD eta antzeko bakoitzaren ale bat; horietan Leioako Udala aipatu behar da laguntzaile gisa. | solicitante y el justificante de pago.<br>b) Facturas originales de los gastos imprescindibles para llevar a cabo la acogida, estancia de los y las menores, seguros de responsabilidad civil, costes de tramitaciones en sus países de origen, gastos sanitarios, vestido y de material que sean necesarios para su estancia en Bizkaia.<br><br>Se considerarán gastos realizados aquellos que hayan sido efectivamente ejecutados en el ejercicio 2018. El Ayuntamiento se reserva el derecho de verificar las declaraciones de las personas solicitantes, pudiendo pedir cuantos datos e informes estime necesarios a otras instituciones públicas o privadas.<br><br>2.-Para una correcta justificación de la ayuda concedida a las asociaciones sin ánimo de lucro se requiere la siguiente documentación:<br>a) Memoria detallada de la actividad desarrollada.<br>b) Balance de ingresos y gastos originados por la actividad; se deberá incluir cualquier otra subvención o ayuda, pública o privada, recibida para la actividad subvencionada.<br>c) Justificantes originales de los gastos devengados como consecuencia de la actividad, hasta el montante total de la cuantía concedida. Tales justificantes consistirán en facturas u otros documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico.<br>d) No se admitirán como justificantes, tickets o recibos que no sean facturas emitidas a la entidad beneficiaria, tampoco se admitirán costes internos de administración, organización de la entidad, los costes de comidas de hermandad o similares, ni los costes que no estén estrictamente vinculados al desarrollo del programa de acogida temporal de niños y niñas de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta hayan sufrido algún tipo de catástrofe.<br>e) Aportación de un ejemplar de cada uno de los folletos, carteles, libros, vídeos, CDs, etc. que se hayan editado o publicado con ocasión de la actividad subvencionada, en ellos deberá haberse incluido al Ayuntamiento de Leioa |

Jarduera beste edozein erakunde publikoren edo pribaturen bestelako laguntzekin edo baliabideekin batera finantzatu bada, funts horien jatorria eta diruz lagundutako jardueretarako aplikazioa egiaztatu beharko dira justifikazioaren zati gisa.

Aurkeztutako justifikazio-agiri guztien data diru-laguntza eman den ekitaldi ekonomikokoa izango da.

2018ko abenduaren 31n amaituko da justifikazioa aurkezteko epea.

Diruz lagundutako jarduerak justifikatzeko epeak igaro eta horiek egin direla guztiz egiaztatu eta justifikatu ez bada edo egindako ekintzen benetako kostuak diruz lagundutakoak baino txikiagoak badira, jaso diren eta justifikaturik ez dauden kopuruak itzuli beharko dira.

**10. artikulua. Diru-laguntzen ordainketa**

Diru-laguntzak ezarritako prozeduraren arabera onartutakoan eta dagozkien administrazio-izapideak egindakoan, diru-laguntza ordainduko da, ematen den unean bertan eta ordainketa bakarrean.

**11. artikulua. Bateragarritasuna**

Diru-laguntza hau bateragarria da iragarri den edo iragarriko den beste edozeinekin, baldin eta horren xede den jarduera dela-eta jasotzen diren guztien ondorioz emateko aintzat hartu den aurrekontua gainfinantzatzen ez bada. Hori gertatuz gero, deialdi honen arabera eskatutako laguntzaren zenbatekoa gainditzen duen kopurua kenduko da edo kopuru hori itzultzeko eskatuko da.

**12. artikulua. Eskaeren birformulazioa**

Diru-laguntzaren xedea erakunde eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea denean eta behin-behineko ebazpen-proposameneko diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran agertzen dena

como colaborador.

Cuando la actividad haya sido cofinanciada con otras ayudas o recursos por parte de cualquier otra entidad pública o privada, deberá acreditarse, como parte de la justificación, la procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

Toda la documentación justificativa presentada, habrá de estar fechada en el ejercicio económico para el que se conceda la subvención.

El plazo máximo para la presentación de la justificación será el 31 de diciembre de 2018.

Transcurridos los plazos de justificación de las actividades subvencionadas sin que se hubiera acreditado y justificado en su totalidad la realización de las mismas, o si los costes reales de las acciones realizadas resultan inferiores a los subvencionados, se deberá reintegrar las cantidades percibidas no justificadas.

**Artículo 10.-Pago de las subvenciones**

Una vez aprobada las subvenciones conforme al procedimiento establecido, y transcurridos los trámites administrativos correspondientes, se procederá al abono de la subvención en el momento de su concesión y en un único pago del importe concedido.

**Artículo 11.- Compatibilidad.**

Esta subvención es compatible con cualesquiera otras convocadas o que se convoquen siempre que del conjunto de las que se reciban por la actividad objeto de las mismas no se produzca sobre financiación respecto del presupuesto sobre el que han sido concedidas. Ante tal supuesto, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso del importe de la ayuda solicitada en virtud de la presente convocatoria o se solicitara una devolución de dicha cantidad.

**Artículo 12.- Reformulación de solicitudes**

Cuando la subvención tenga por objeto la financiación de actividades a desarrollar por la entidad solicitante y el importe de la subvención de la propuesta de resolución provisional, sea inferior al

| | |
|---|---|
| baino txikiagoa denean, ebazpena eman baino lehen, zazpi eguneko epea emango da beharrezkotzat jotzen duen erakunde onuradunak bere eskaera birformula dezan, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzara egokitze aldera.<br><br>Edonola ere, eskaerak birformulatzean diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerei edo eskabideei buruz ezarritako balioespen-irizpideak ere.<br><br>**13. artikulua. Betebeharrak ez betetzea**<br><br>Diruz lagundutako jarduera burutzen ez bada, diru-laguntza ezarri bezala justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo laguntza horren justifikazioa nahikoa ez bada, onuradunak emandako diru-laguntzaren zenbateko guztia edo zati bat itzuli beharko du, ez-betetze mailaren arabera.<br><br>Laguntzen onuradun diren pertsonek, familia-unitateek edo erakundeek ez badute betetzen deialdi honetan, emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzetako edozein, alkatetza-dekretu baten bidez eta onuradun den pertsonari, familia-unitateari edo erakundeari entzunaldia eman ostean, emandako diru-laguntza baliogabetu egingo da eta itzultzeko prozedura bat hasiko da.<br><br>Itzultzeko prozedura azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan ezarritakoarekin eta Leioako Udaleko diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorraren (2012ko abenduaren 17ko osoko bilkuran onetsi, eta 29. BAOn, 2013ko otsailaren 11koan, argitaratu zen) hamazazpigarren eta hemeretzigarren oinarriekin bat etorriko da.<br><br>**14. artikulua. Jardueren ebaluazioa**<br><br>Leioako Udalak batzorde bati agindu ahalko dio deialdi honen babesean diruz lagundutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.<br>Ebaluazio-batzorde horrek, kanpoko aholkulariei laguntza eskatu ahalko du. | que figura en la solicitud presentada, antes de dictar resolución, se procederá a la apertura de un plazo de siete días, para que, la entidad beneficiaria que así lo estime necesario, proceda a la reformulación de su solicitud, a fin de ajustar los compromisos y condiciones a la subvención otorgable.<br><br>En cualquier caso, la reformulación de solicitudes deberá respetar el objeto, condiciones y finalidad de la subvención, así como los criterios de valoración establecidos respecto de las solicitudes o peticiones.<br><br>**Artículo 13.- Incumplimiento de las obligaciones**<br><br>La no realización de la actividad subvencionada, el incumplimiento de la obligación de justificación de la subvención en los términos establecidos o la justificación insuficiente de la misma implicará la obligación por parte del beneficiario de reintegrar el importe total o parcial, dependiendo del grado de incumplimiento de la subvención concedida.<br><br>En el supuesto de que las personas, unidades familiares o entidades beneficiarias de las ayudas incumplieran cualquiera de las condiciones establecidas en la presente convocatoria, en la resolución de otorgamiento o en la normativa de aplicación, mediante Decreto de Alcaldía y previa audiencia a la persona, unidad familiar o entidad beneficiaria, se dejará sin efecto la subvención concedida y se iniciara un procedimiento de reintegro.<br><br>El procedimiento de reintegro se ajustará a lo establecido en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y a las bases decimoséptima y decimonovena de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa, aprobada en sesión plenaria el 17 de diciembre de 2012 y publicada en el BOB nº 29 de 11 de febrero de 2013.<br><br>**Artículo 14.-Evaluación de actividades**<br><br>El Ayuntamiento de Leioa podrá encomendar a una Comisión el seguimiento y evaluación de las acciones subvencionadas al amparo de la presente convocatoria. |

| | |
|---|---|
| Deialdi honetan xedatutako diru-laguntzen onuradun diren erakundeak batzorde horrekin elkarlanean aritzera behartuta egongo dira, behar diren jarduketak gauzatzen dituenean. | Esta Comisión de evaluación podrán solicitar asistencia externa al efecto.<br>Las entidades beneficiarias de las subvenciones previstas en la presente convocatoria quedan obligadas a colaborar con la citada Comisión en el ejercicio de las actuaciones requeridas. |
| **AZKEN XEDAPENA** | **DISPOSICIÓN FINAL** |
| Diru-laguntza deialdi honetan araututa ez dauden kasuetan, xedapen hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzkoa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onartzen duena, eta Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituen ordenantza orokorra. | En lo no previsto en estas bases será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa. Así mismo, en caso de contradicción con lo estipulado en estas bases será de aplicación lo previsto en la normativa citada. |

ANEXO III

CRITERIOS OBJETIVOS DE OTORGAMIENTO DE LAS SUBVENCIONES.

Los proyectos presentados se valorarán de 0 a 100 puntos, asignándose la cuantía de la subvención, a cada uno de ellos, proporcionalmente a la puntuación obtenida.

Los criterios o indicadores de valoración del proyecto serán los siguientes:

1. **Entidad solicitante: Inscripción: 30 puntos**
   1.1. Posee sede social en el municipio de Leioa- 30puntos
   1.2. La sede social se encuentra en Bizkaia-15 puntos

2. Experiencia en programas de acogida temporal, , de niños y niñas de países en vías de desarrollo o que de forma directa o indirectamente hayan sufrido una catástrofe, avalada en la memoria descriptiva solicitada en el punto 4.b) 6: **25 puntos**
   **2.1.** La entidad acredita experiencia de más de 10 años desarrollando este tipo de programas. 25puntos
   **2.2.** La entidad acredita experiencia de menos de 10 años y más de 5 años desarrollando este tipo de programas. 20 puntos
   **2.3.** La entidad acredita experiencia de más de 1 año y menos de 5 años desarrollando este tipo de programas: 15 puntos

3. Experiencia acreditada en Cooperación con el país en vías de desarrollo o que de forma directa o indirecta haya sufrido algún tipo de catástrofes. **25 puntos**

4. Calidad del Proyecto presentado **20 puntos**

III. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK.

Aurkeztutako proiektuei 0 eta 100 puntu bitarteko balioespena emango zaie, eta lortutako puntuazioarekin proportzionalki esleituko zaio bakoitzari diru-laguntzaren munta.

Hauek izango dira proiektua balioesteko irizpideak edo adierazleak:

1. **Erakunde eskatzailea: inskripzioa: 30 puntu.**
   1.1. Sozietatearen egoitza Leioa udalerrian du: 30 puntu.
   1.2. Sozietatearen egoitza Bizkaian dago: 15 puntu.

2. Esperientzia garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko programetan, ekintzen memoriarekin 4b)6 artikuloan aipatzen den moduan : **25 puntu**
   **2.1.** Erakundeak egiaztatzen du 10 urte baino gehiagoko esperientzia duela horrelako programak garatzen: 25 puntu.
   **2.2.** Erakundeak egiaztatzen du 10 urte baino gutxiagoko eta 5 urte baino gehiagoko esperientzia duela horrelako programak garatzen: 20 puntu.
   **2.3.** Erakundeak egiaztatzen du urte 1 baino gehiagoko eta 5 urte baino gutxiagoko esperientzia duela horrelako programak garatzen: 15 puntu.

3. Egiaztatutako esperientzia garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeekiko lankidetzan: **25 puntu.**

4. Aurkeztutako proiektuaren kalitatea: **20 puntu.**